

hor Irlanda eta Kaliforniako udalekuak, betiere helburua bera dutela.

Horrelako egonaldiak gero eta gehiago zabaltzen ari dira. Adibide bat aipatzearen, hor dugu Lazkaoko San Benito Ikastola. Ikastola horrek, Euskadiko Kutzaren laguntzaz, Ingelesa ikasteko egonaldiak antolatu ditu Nafarroako Beire eta Lizarra herrietan.

## Euskaraz Bizi

Euskal Herriko ikastola gehienetan Euskaraz Biziko taldeek hamaika udaleku eta kanpaldi antolatzen dituzte urtero. Helburu bakarra izaten dute udaleku horiek; lagun euskaldunekin euskaraz ondo pasatzea, alegia.

Esan bezala, mila leku eta kanpaldi antolatzen dira eta, guztiak aipatzea ezinezko zaienez, adibide bat jarriko dugu. Beraz, Iruñeko Paz Zigada Ikastolako, Tolosako Lasko-

rain Ikastolako, Lizarrako Ikastolako eta Gasteizko Ikastolako Euskaraz Bizi Taldeek antolatzen dituzten egonaldiez ariko gara.

Ikastola horietako Euskaraz Bizi taldeko kideek uztailaren euskarazko udalekuak antolatzen dituzte eta abuztuaren, berriz, ingeleseko egonaldiak.

Horrela, zortzi-tik hamar urte bitartekoentzat uztailaren, bi txandetan, Lekeitio herrian udalekuak antolatzen dituzte. Hamar, hamaika eta hamabi urteko gazteak, aldiz, Auritz nafar herrira gonbidatzen dituzte, eta hamahiru urtekoentzat, berriz, hamar egunetan Urbasa ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

Horrez gain, uztailaren bertan, Pirinioak zeharkatzeko aukera dute hamahiru eta hamabost urteko gazteek.

Urtetik urtera berrikuntza interesgarriak izan ohi dira udalekuetan

EDURNE KOCH

Hezkuntzak eta jolasak bat egiten dute udalekuetan.

Azkenik, abuztuko hilabetean, Oronoz herrian zortzi urtetik hamasei urte bitarteko gazteentzat ingeleseko kanpaldiak antolatzen dituzte.

Eskaintza zabal horretaz gozatzeko aukera aipaturiko ikastola horietako kideek izango dute, betiere euskaraz soilik hitz egiteko baldintzapean.

Ikas-Bi Elkartek eta Azkarateko zentroak, Bizkaiko Foru Aldundiko diputazioarekin duen proiektu komunaren barruan, zazpi egunetako euskarazko egonaldiak antolatzen dituzte.

Udaleku horiek guztiak elebidun irakaskuntzan ikasten duten zortzi urtetik hamaika urte bitarteko gazteentzat antolatuak daude. Eta Azkarate, Gorliz, Euba, Orduña, Doneztebe, Bertiz eta Bidarra herrietan egingo dituzte aurtengo udalekuak.

Egonaldi guztiek kirol ekin-

tza, jolas eta abarrak euskaraz gozatzeko aukera eskaintzen dute.

Aukera horretaz gain, Iparraldeko Seaska Ikastolak, Baionako Uda Leku Elkartearekin batera, hainbat ikastaro eta kanpaldi antolatu ditu lau urtetik hamalau urteko gazteentzat. Horien artean, zaldi ikastaldi, Internet ikastaldi, itsas bela ikastaldia, bertso-larritza ikastaroa, Goizueta-ko Topaketak, arte martzialak eta abar antolatu dituzte aurtengo uztail eta abuztutarako.

## Euskal Udalekuak

Euskal Udalekuak Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, lau tokietarako udalekuak antolatzen ditu urtero. Lau udaleku horiek Abaigar, Goñi, Bernedo eta Urdiritzeko udalekuak izaten dira.

Horietara joateko gonbidapena zortzi urtetik hamasei urte bitarteko gazteei egiten zaie. Udaleku horien baldintza bakarra euskaraz jakin eta soilik euskaraz hitz egitea da, eta gainontzeko guztia bertako begiraleen esku gelditzen da.

## Bestelako abenturak

Hamalau urtetik hamazazpi urte bitarte dituzten gazteentzat, Eusko Jaurlaritzak mila abentura eta kirol ekintza antolatzen ditu urtero.

Egonaldi edo udaleku horiek, bestalde, badute berezitasunik. Izan ere, gehientsuenak Euskal Herri-kanporakoak izaten dira. Uztailaren eta abuztuaren, Espainiako estatuko hainbat eskualdetara bidaia eta udalekuak antolatzen dituzte, eta bertan beste ekintza, jolas eta ohitura batzuk ezagutzeko aukera ematen da.



Udalekuak, uretan, Garesko udaleku bateko igerilekuan.

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

# Oporrak

# 29.000

Pta N



**VIAJES EROSKI**  
BIDAIAK

Prezio Onak baino askoz ere gehiago

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK